

Unai Rodríguez eta Beñat Redondo, Gazte Asanbladako kideak:

“Sagardo Egunarekin giro euskalduna sustatu nahi dugu”

Aspaldiko partez, Sagardo Eguna antolatuko da Ermuan berriro ere. Herriko Gazte Asanbladako kideek bultzatutako ekimen hau martxoaren 22an burutuko da, 11:00etan hasita. 14 etxetako 800 sagardo litro egongo dira dastagarri; eta pintxo, trikitilari, dantza eta erromeriaz gozatzeko aukera egongo da.

- Zer dela-eta bururatu zaizue Sagardo Eguna antolatzea?

Irailean hasi ginen buruari bueltak ematen, zerbait antolatu genezakeela pentsatzen, eta ez zitzaigun ezer berezirik bururatzen. Gau batean, Txalaparta tabernan geundela, Sagardo Eguna antolatzea proposatu zigun Binbok. Eta bete-betean asmatu zuen!

- Eta zein da ekimenaren helburua?

Alde batetik, euskal giroa sustatzea eta ohitura zaharrak berreskuratzea; beste alde batetik, herriari bizitasuna eman nahi diogu. Tabernariak kexatu egiten dira asteburuetan jendea Eibarrrera doalako, ba tira, guk gure aldetik zerbait egingo dugu!

- Zenbat sagardo saltzeko asmoa duzue?

800 litro. Eibarren goizean saltzen dutena kontuan hartu eta apur bat gehiago eskatu dugu. Badaezpada. Eibarko Sagardo Eguna baino hobea izatea nahiko genuke!

- Sagardotegi ezberdineta-ko sagardoa ekarriko duzue?

Bai, 14 leku ezberdineta-ko sagardoa lortu dugu. Hasieran, herriko tabernarien bitartez lan egiteko asmoa genuen, baina gehienek ez zuten asko inplikatu nahi. Azkenean, Gipuzkoan barrena osteratxo batzuk egin behar izan genituen eta haxe da emaitza.

- Sagardoa dastatu ahal izateko, edalontzia erostea nahikoa izango da?

Bai eta edalontziarekin batera zapi bat jasoko dute bisitariak. Postuak eta karpak egongo dira plazan, eta zirkuitu antzekoa ipiniko dugu. Bertan, nahi beste sagardo edan ahal izango dute edalontzia erosi dutenak.

- Egitaraua prest duzue?

Bai, lotuta daukagu dena. 11:00etatik 15:00ak arte sagardoa dastatzeko aukera egongo da plazan eta bertan, trikitilariak eta Txindurri taldeko dantzariak parte hartuko dute. 17:30ean, berri, txosna zabalduko dugu eta 19:30ean erromeria es-



kainiko du Araba dendako taldetxoak, Asierrek eta Amaiak. 21:00etan bukatuko dira gure ekitaldiak eta, ordu horretatik aurrera, tabernen txanda izango da.

- Pintxoak bertan egingo dituzue?

Bai, Erretena Elkartea Gastronmikoko kideek lagunduko digute.

- Zenbat neska-mutil zabilzate antolaketan eta zenbat izango zarete egunean bertan?

20 bat lagunek osatzen dugu Gazte Asanblada, baina gu biok gara kontu honen arduradun nagusiak. Egune-

an bertan ez dakigu oraindik zenbat bilduko garen, koa-drilakoak ere apur bat zirikatu behar ditugu... Jendea soberan egotea espero dugu.

- Giro ederra sortuko da...

Bai. Gainera, gu baserritarrez jantzita joango gara eta herriko jendea ere, baserritarrez jantzera animatu nahi dugu, San Martin Azokan bezala. Bestalde, baliteke sorpresaren bat egotea: pertsona famaturen bat etor liteke ‘txotx’-a egitera. Baina ezin dugu aurreratu, oraindik lotu barik dago-eta!

Dorleta Vidal

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua